


**BIZITEGI ERAIKINA**  
D MAILA

**KALE BERRIA 8**



**Egilea eta data: Gurruchaga; 1911**

**Deskribapena**

Mehelinen arteko eraikina, behe oina, jatorrizko hiru goi oin eta bi jasodura dituena, lehenengoa mantsarda modukoa (jatorrizko estalkipea eraberrituta) eta bigarrena atzeraemana (1925ean, osatu eta berregin egin ziren jasodura horiek). Konposizio erregularreko harlanduzko fatxada, jatorrizko proiektutik nabarmen aldatzen dena. Proiektua komuna da Erronda 6 eta 4rekin.

**Babes erregimena**

1. Erregimen orokorra:
  - Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
  - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako bakoaren konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
  - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodurak (5. eta 6. goi oinak).
  - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
  - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
    - \* Fatxadaren eta behe oineko bakoaren konfigurazio bateratua.
    - \* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.